DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Kudeaketa
Gestión Económica
Ijentea, 6 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Aseguru pertsonalak (bizitza eta istripuak) - Preskripzio teknikoen agiria

Bizi eta baliaezintasun aseguruak:

Udaleko, udal enpresetako eta beste udal entitate batzuetako langileak nahiz korporaziokideak eta ordezkariak ere

Istripu aseguruak:

Udaleko eta udal enpresetako langileak naiz korporaziokideak eta ordezkariak

1. ASEGURU HAUEN ESTALDURA KONTRATATZEA:

BIZITZA ETA BALIAEZINTASUNA, EDOZERGATIK

ONURADUNAK:

DONOSTIAKO UDALEKO ETA UDAL ENPRESETAKO LANGILEAK KORPORAZIOKIDEAK ETA ORDEZKARIAK

Kontratu honen xedea da BIZITZA ETA ISTRIPU polizako estaldurei dagozkien arrisku pertsonalak aseguratzea Donostiako Udaleko (korporaziokideak eta ordezkariak, langileak eta behin-behineko langileak), udal erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko udal erakunde publikoetako eta udal sozietate publikoetako langileei.

Erakunde autonomoak:
- Donostiako Kirolaren Udal Patronatua.
- DonostiaTIK.
- Donostiako Musika eta Dantza Eskola.

Enpresa erakunde publikoak:
- EPE Donostia Kultura.
- Donostiako Etxegintza.

Udal sozietate publikoak:
- Donostia Hileta Zerbitzuak SA
- Compañía del Tranvía de San Sebastián-DBUS SA
- Donostiako Sustapena SA
- Donostia Turismo SA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA -

DEFINIZIOAK

Aseguratzailea: Kontratuan hitzartutako arriskuak bere gain hartzen dituen aseguru erakundea.

Aseguru hartzailea: Asegurua aseguratzailearekin kontratatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

Aseguratua: Aseguratutako interesaren titular diren pertsona fisikoak.

Onuraduna: Kalte ordaina jasotzeko eskubidearen titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa, aseguratuak lagapena egin duelako, halakorik gertatuz gero, edo aseguratua hil delako, edo beste edozein inguruabar dela-eta. Ezkontideari buruzko aipamenak izatezko bikoteari ere aplikatuko zaizkio.

Poliza: Asegurua arautzen duten baldintzak biltzen dituen agiria. Polizaren parte dira kontratazio hau arautzen duten baldintza administratiboen agiria eta preskripzio teknikoen agiria, bai eta hura osatzeko edo aldatzeko gerora eman daitezkeen gehigarri, eranskin edo argitalpenak ere.

Prima: Aseguruaren prezioa. Ordainagirian, gainera, legez aplikatzekoak diren errekarguak eta zergak sartuko dira.

Ezbeharra: Poliza honen baldintzen arabera ordaindu beharreko arrisku aseguratuetako bat gauzatzea.

.ASEGURU HARTZAILEA

Donostiako Udala

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

.ASEGURUAREN HELBURUA

Hartzaileak Donostiako Udaleko langileen eta udal enpresetako langileen alde heriotza eta baliaezintasun kasuetarako bizi aseguru bat kontratatzea da lehiaketaren helburua, agiri honetan zehazten diren baldintzen arabera.

.BALDINTZA TEKNIKOAK

Polizaren baldintza teknikoak ondoren zehazten dira. Gutxieneko estalduratzat hartzekoak dira, eta lizitatzaileek hobetu ditzakete.

ESTALDUREN HELMENA

Eguneko hogeita lau orduetan eta mundu osoan daude aseguratuak poliza honen estalduren babespean, bai bizitza arruntean eta partikularrean, bai lanbidean aritzean.

.ASEGURATUTAKO TALDEA

a. Donostiako Udala eta haren erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta udal-sozietate publikoen eta haren langileen arteko lan harremana erregulatzen duten arauen arabera aseguratu beharreko langileek osatzen dute aseguratutakoen taldea. Seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian dauden langileak (3 urtez, gehienez) eta genero indarkeriagatiko eszedentzian daudenak (18 hilabetez, gehienez) sartzen dira —ikus Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 89. artikulua—, une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren arabera.

   Era berean, Donostiako Udaleko korporatiboak eta ordezkariak ere sartzen dira.

b. Aurreko atalean adierazitakoa betetzen duten pertsona guztiak automatikoki aseguratutzat joko dira enpresa esleipendunak ematen duen polizaren bidez, eta lehendik izan daitezkeen guztiak bere gain hartuko ditu.

   Hala ere, informazio gisa, hartzaileak urtero emango dio aseguratzaileari zerbitzuan dituen langileen zerrenda eguneratua.

   Era berean, ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratzaileak aseguruaren hartzaileari ziurtagiri bat eska diezaioke ezbeharra izan duen pertsona hori hartzailearen zerbitzuan benetan lanean ari zela egiaztatzeko, bai eta ezbeharraren inguruabar eta ondorioei buruzko informazio guztia ere.

c. Bajako langileak: Aldi baterako ezintasunean, behin-behineko baliaezintasunean, lanerako ezintasun iragankorrean, kontratua etenda edo baliaezintasuna tramitatzeko prozesuan dauden langileak.

d. 65 urtetik gorako langileak: Era berean, espresuki hitzartzen da 65 urte beteta dituzten aseguratu guztiek estalita eta berme guztiekin jarraituko dutela, baldin eta hartzailearen agindupean zerbitzu aktiboan jarraitzen badute.

e. Hartzailearen zerbitzuan alta emandako langile minusbaliatuak, minusbaliotasun horretatik ez datorren zeinahi ezbeharretarako.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Gobierno Local - Secretaría

f. Aseguratutako kolektiboko kide izateagatik edozein arrazoirengatik lana utziz gero, aseguratutako kolektibokoa den bitartean gertatutako gorputz kalteak eragin dituzten eta polizaren estaldurei eragiten dieten gertakarien ondoriozko eskubideak gordeko dira, soilik ezgaitasunaren ondorioen data GSINak edo epai judizial irmoak zehazten duenean eta langilea aktibo zegoen aldiari eraginez gero.

ASEGURATU KOPURUA

Aseguratutako kolektiboa gaur egun osatzen duten kideen kopurua, gutxi gorabehera: **2.614** pertsona.

KAPITALAK EDO BERMEAK ALDATZEA

1. Kapitalak eta, hala badagokie, bermeak, aldatu egingo dira aseguru hau kontratatzearen jatorri den lan hitzarmeneko estipulazioak aldatzen diren zenbateko eta proportzio berean.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarren aldaketaren hasierako eragina atzera eramango da Hartzailearen eta bere langileen arteko Lan Harremanari buruzko Arau Arautzaileetako xedapenak indarrean sartzen diren egunera, Aseguru Hartzaileak esleipendunari jakinarazpena egiten dion eguna edozein dela ere.

3. Hartzaileak eta esleipendunak, ados jarrita, sistema bat ezarriko dute aseguratutako berme edo kapitaletan aldaketak egiteko eta aldaketa horien ondorioz sortzen den prima likidatzeko.

GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ESKUMENA DUTEN ADMINISTRAZIO EDO JURISPRUDENTZIA ORGANOEN ERABAKIEKIKO LOTURA

Polizak Gizarte Segurantzaren prestazioak borondatez hobetzen dituenez, eta, ondorioz, arau soziolaboralei lotuta dagoenez, aseguruak honako alderdi hauek bete beharko ditu, aseguru kontratuari buruzko 20/1980 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako arauez gain:

Poliza honen babesean ordaindu beharreko kontingentziatzat hartuko da Gizarte Segurantzaren erregulazioak izaera hori ematen dion edozein gertaera, eta, nolanahi ere, loteslea izango da Gizarte Segurantzaren arloan eskumena duten administrazio edo jurisdikzio organoen adierazpena.

Lanekoa ez den istripuaren nozioa aseguru pribatuko kontratuaren erregulazioak zehaztuko du, aurreko paragrafoan aipatutako Gizarte Segurantzako organoek parte hartu ez badute.

Ezgaitasun maila zehazteko, loteslea izango da organo eskudunek, administrazio edo jurisdikzio arlokoek, Gizarte Segurantzaren arloan, poliza honek estalitako egitateengatik langileari gizarte eta lan araudiaren arabera dagokion ezgaitasun mailari buruz hartutako erabaki irmoa.

Horri dagokionez, ezgaitasunen mailaketa eta bakoitzari dagokion korrespondentzia zehaztuko dira. Hona hemen:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Gobierno Local - Secretaría

- Lan arloko bidean aitortutako baliaezintasun handia polizan estalitako baliaezintasun handiaren baliokide da.

- Lan arloko bidean aitortutako erabateko ezintasun iraunkorra polizak estalitako erabateko ezintasun iraunkorraren baliokide da.

- Lan arloko bidean aitortutako ezintasun iraunkor osoa polizak estalitako ezintasun iraunkor osoaren baliokide da.

ONURADUNAK

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratuek berariaz izendatutakoak izango dira onuradunak, eta aseguru hartzaileak idatziz jakinaraziko dizkio kontratuaren esleipendunari.

Hala ere, aseguratuak berariaz izendatu ez baditu, onuradunak ondoko hurrenkeraren arabera izango dira:

- Ezgaitasunen bat izanez gero, aseguratua bera.

- Heriotza gertatuz gero, lehentasunezko eta baztertzeko arau hauek erabiliko dira:

1. Lehenik, aseguratutako taldeko kide bakoitzak kontratua indarrean dagoen bitartean edozein unetan egindako izendapena beteko da.

2. Onuradun izendaturik ez badago, heriotzaren kasurako aseguratutako kapitala lehentasunezko eta baztertzeko arau hauei jarraituta ematekoa da:

a. Lehenik eta behin, ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera behar bezala eratutako izatezko bikotekidea, aseguratua hil zen egunean legez bananduta ez badaude.

b. Legez banandu gabeko ezkontidea ez badago, seme-alabak eta, horrelakorik ezean, aseguratuaren gainerako ondorengoak.

c. Aurrekorik ezean, gurasoak eta, horrelakorik ezean, aseguratuaren gainerako aurrekoak.

d. Aurrekorik ezean, aseguratutako kapitala aseguratuaren legezko oinordekoei emango diete, Estatua salbuetsita, nolanahi ere.

3. Onuradun bat baino gehiago egonez gero, eta aseguratuak haien artean aldez aurretik banatu ezean, Kode Zibilak herentziaren delazioari eta deiei buruz ezarritako arauei jarraituko zaie, analogiaz.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

.ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA ORDAINTZEA

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratutako zenbatekoa **transferentzia** bidez ordainduko du aseguratzaileak. Transferentzia hori aseguratuaren edo, hala badagokio, dagokion onuradunaren izenean egingo du, aurreko atalean zehaztutako arauen arabera.

Agiri hauetan jasotako ezintasun motak zehazteko, loteslea izango da Gizarte Segurantzako organo eskudunen erabakia, bai eta Segurtasun Institutu Nazionaleko edo organo baliokideko ezintasunen balorazio medikoko unitatearen irizpen medikoa ere.

Horrelakoetan, aseguratutako kapitala ordainduko du aseguratzaileak, gaixotasunaren jatorria, arrazoia eta garapena adierazten duen mediku ziurtagiria jaso ondoren, edo, bestela, Gizarte Segurantzak, Segurtasun Institutu Nazionaleko Balorazio Medikoko Unitateak edo organo baliokideak emandako kalifikazioa jaso ondoren.

EZBEHARRA GERTATU ETA KALTEAK ORDAINDU BEHAR DIRENEAN BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK:

- Ez da inor geratuko estalduratik kanpo polizak indarra hartu aurretik sortutako gaixotasunen edo istripuen ondorioz.
- Kontratuaren hasiera datan ez da baztertuta geratuko aldi baterako ezintasun egoeran dagoen inolako aseguraturik.
- Polizaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira bizitza aseguruko ezbeharraren datatzat:

  Heriotza, istripuaren ondoriozko heriotza eta zirkulazio istripuaren ondoriozko heriotza bermeak: heriotza data.

  Baliaezintasun bermeak: ezintasun iraunkorra aitortzen duen irizpen, ebazpen edo epaian ezarritako ondorio ekonomikoen data, baldin eta langilea irizpenak, ebazpenak edo epaiak aipatzen duen unean aseguratutako kolektibokoa bada edo izan bada.

- Konpainiak, ezbeharraren dokumentazio osoa jaso ondoren, dagokion kalte ordaina pagatu beharko du 15 egun naturaleko epean. Dokumentazioa jasotzen duenetik hiru hilabetera kaltea ordaintzen ez badu, bidezko arrazoirik gabe, Aseguruaren Kontratuaren Legean xedatutako berandutza interesa aplikatuko da.

- Prima ordaintzeko unea edozein dela ere, aseguruaren indarraldian gertatutako ezbeharrengatiko kalteak ordaindu beharko ditu aseguratzaileak.

- Ezgaitasun bermeak direla-eta bidezkoa den kalte ordaina pagatzeko, ez da oztopo izango ezgaitasun egoera berriro aztertu ahal izatea larriagotzea edo hobetzea direla eta.

- Baldin eta Gizarte Segurantzaren ebazpenak honako hau adierazten badu: "Aurreikusitakoaren arabera, ezintasun egoera berrikusi egingo da, hobera egitearen ondorioz, eta bi urte baino lehen lanera itzultzeko aukera emango du hobekuntza horrek" (Langileen Estatutuaren Legearen 48.2 artikulua), baliaezintasunagatiko prestazioaren ordainketa etenda geratuko da, lanpostua gorderik duen lan etenaldia dagoen bitartean. Bestela, Gizarte Segurantzaren ebazpena aurkezten duten unean pagatuko du kalte ordaina.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

AUTOMATIKOKI SARTZEA

Aseguru hartzaileak polizan sartu behar dituen pertsona guztiak automatikoki integratuko dira hartan, osasun adierazpenik edo antzekorik zertan eginik ez dutela.

Espresuki adierazten dugu ezen aseguruaren hartzaileak 12 hilabete baino aldi laburrago baterako langileak kontrata ditzakeenez, horiek automatikoki sartuko direla aseguruan kontratatzen dituen unetik. Aseguratzaileak, aseguruaren hartzailearekin bat, aseguratu horiei dagokien prima erregularizatzeko mekanismoa ezarriko du.

Aseguruaren urte bakoitza bukatutakoan, likidazio bat egingo dute, aseguratutako taldean gertatutako aldaketen ondorioz hasierako priman izan den eragina erregularizatzeko.

.ESTALITAKO ARRISKUAK

a. **Aseguratua hiltzea:** Aseguratua hiltzen bada, aseguratzaileak bermatuko du onuradunei hitzartutako kapitala ordainduko diela, edozein dela ere heriotza eragiten duen arrazoia. Era berean, espresuki sartutzat joko dute bere buruaz beste egiteagatik aseguratua hiltzea, are aseguratutako taldean sartu eta lehen urtean ere.

b. **Aseguratuaren ezintasun iraunkorra eta erabatekoa:** Aseguratzaileak hitzartutako kapitala ordaintzea bermatuko du, gaixotasun edo istripu baten ondorioz aseguratua erabateko ezintasun iraunkor baten eraginpean gelditzen bada.

   Aseguru honen ondorioetarako, ezintasun absolutu eta iraunkortzat hartzen da istripu edo eritasun batek eragindako egoera fisiko itzulezina, aseguratuaren borondatearekin zerikusirik ez duena eta aseguratuak edozein lan harremani edo lanbide jarduerari iraunkorki eusteko duen ezintasun erabatekoa ekarriz gero.

c. **Ezintasun iraunkorra eta osoa, aseguratuak ziharduen lanbiderako edo lanbidea sartuta zegoen lanbide talderako:** aseguratzaileak hitzartutako kapitala ordaintzea bermatuko du, gaixotasun edo istripu baten ondorioz aseguratua lanerako ezintasun osoa eta iraunkorra badu.

   Aseguru honen ondorioetarako, Ezintasun Profesional Osoa eta Iraunkorra da istripuaren edo gaixotasunaren ondorioz sortutako egoera fisiko itzulezina da, aseguratuaren borondatea edozein dela ere sortua, aseguratuari bere ohiko lanbidean edo bere prestakuntza nahiz ezagutza profesionaleko antzeko jarduera batean aritzeko erabateko ezgaitasuna sortzen diola.

* Heriotza bermeaz gain, ehorzketa gastuetarako 1.202,03 euroko bermea ezarrita dago.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

.ASEGURATUTAKO KAPITALAK

Aseguratutako kolektiboa osatzen duen pertsona bakoitzarentzat aseguratutako kapitala honako hau da:

BERMEA	ASEGURATUTAKO KAPITALA
a. Heriotza	40.000,- euro
b. Ehorzketa gastuak	1.202,03,- euro
c. Ohiko lanbiderako ezintasun osoa eta iraunkorra	40.000,- euro
d. Erabateko ezintasun iraunkorra	40.000,- euro
e. Baliaezintasun handia	40.000,- euro

Kasu guztietan, aseguratzaileak aldi bakarrean ordainduko du aseguratutako kapitala.

Aseguratutako kapitalak arestian aipatutako berme bakar batengatik ordainduko dira.

Aseguratuak edo aseguratutako kapitalaren onuradunek poliza honek estalitako edozein kontingentziarengatik kobratzea bateragarria da kontingentzia berak estaltzen dituzten beste poliza batzuen bidez aseguratutako beste kapital batzuk kobratzearekin.

Arestian aipatutako **a**, **c** eta **d** bermeetarako, aseguratutako kapitalak horietako bakar batengatik ordainduko dizkie onuradunei, hau da, ez dira metagarriak, elkarren baztertzaileak baizik.

Akats administratiboaren klausula

Hartzailea behartuta dago talde aseguratuan gertatzen diren aldaketen berri konpainiari ematera. Hala ere, hartzaileak asmo txarrik gabe egindako akats edo ahaztu izanaren ondorioz polizaren bidez gauzatutako pentsio konpromisoari lotutako langile bat edo gehiago polizan sartu ez baditu, bete beharreko bermeen edo kapitalen aldaketa jakinarazi ez badu, edo, jakinarazi arren, okertu bada, eta aseguraturen batek edo batzuk ezbeharra izanez gero, aseguru etxeak ezbeharra onartuko luke, baldintza hauek betez gero:

a. Ezbeharraren ondorioak polizak babesten duen arrisku batetik etortzea eta langilea enpresan alta eman ondoren gertatzea.

b. Hartzaileak egiaztatu behar du akats administratiboren bat dagoela, alta agiriaren bidez (langileentzako TC2 agiriaren kopia, korporatibo baten izendapena jasotzen duen aldizkari ofizialaren kopia, eskoltarentzako agiri ofiziala edo hartzailearekiko lan harremana egiaztatzen duen beste edozein agiri), ezbeharra gertatu baino lehen indarrekoa delarik dena delako agiriak.

   Ondoren, polizaren administrazio sisteman adostutako epean, langilea polizan sartu behar zuten egunetik ezbeharraren datara bitarteko aldiari dagokion prima likidatuko dute.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Partzuergoaren klausula

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako eta maiatzaren 16ko 12/2006 Legeak aldatutako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoaren arabera, nahitaez enpresa erakunde publiko horren aldeko errekargua jaso behar duen aseguru kontratu baten hartzaileak eskubidea du indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen edozein aseguru erakunderekin ezohiko arriskuak estaltzea adosteko.

Espainian gertatutako ezohiko gertaerek eragindako ezbeharrek eragindako kalte ordainak, hartan kokatutako arriskuei eragiten dietenak, bai eta atzerrian gertatutakoak ere, aseguratuak ohiko bizilekua Espainian duelarik, aseguruen konpentsaziorako partzuergoak ordainduko ditu, hartzaileak bere aldeko errekarguak ordaindu baditu eta egoera hauetako bat gertatuz gero:

A. Aseguru etxearekin kontratatutako aseguru polizak ez babestea aseguruen konpentsazio partzuergoak estalitako ezohiko arriskua.

B. Aseguru poliza horrek babesturik egon arren, aseguru entitateak bere betebeharrak bete ezin izatea, judizialki konkurtsoan deklaratu dutelako edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kontu hartu edo bere gain hartutako likidazio prozedura bati lotuta dagoelako.

Aipatutako legezko estatutuan, aseguru kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legean, ezohiko arriskuen aseguruaren Erregelamenduan (otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onartua) eta horren xedapen osagarrietan xedatutakora egokituko du bere jarduera Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak.

Ezbeharrik ez izateagatik irabazietan parte hartzea

Irabazietan parte hartzea xedatuta dago, aldeko ezbeharren arabera, arau hauek oinarri direla:

1. Aldeko desbiderapena kalkulatzeko, ordaindutako prima garbiei (administrazio gastuak kenduta) aldi horretan gertatutako ezbeharren zenbatekoa kenduko zaie.

2. Lortzen den aldeko desbideratzeari mozkinetako partaidetzaren portzentajea aplikatuko zaio.

3. Ezbeharren desbideratzea kontrakoa balitz, aseguratzaileak osorik hartuko luke urteko galera, eta hartzaileak ez luke kalterik jasango hurrengo urteetako tarifa prima doitzerakoan.

4. Kontratua berritzen ez badute, poliza ezeztatu aurreko urteko aseguruko mozkinetako partaidetzaren zenbatekoa ordainduko du aseguratzaileak, arau horien arabera.

5. Lizitazio honetako aseguru programa osatzen duten bizitza eta istripu polizek batera hartuko dute parte irabazietan, formula honen arabera:

   PB= XX% (YV%PN vida – SIN vida + YA% PN acc – SIN acc)

Salbuespenak

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Berariaz adierazten da polizak ez duela estaldurako salbuespenik polizaren inolako bermetan hura indarrean jarri aurretik sortutako edo gertatutako gaixotasun edo istripuen ondorioz.

1. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak unean-unean indarra duen legeriaren arabera aparteko arriskutzat jotzen dituenak, entitate horrek ordainduko baititu arrisku horiek. Era berean, polizak ez ditu estaliko Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ezbeharra gertatu zen egunean indarrean zegoen araudian ezarritako arauren bat betetzearen ondorioz estaltzen ez dituen kalteak.

2. Apartekotzat jotzen ez diren arriskuetarako, honako hau hartuko da kontuan:

Heriotza estaldurarako: Ez dago salbuespenik.

Baliaezintasunaren estalduretarako:

Gerren edo antzeko eragiketen ondorioak.

Erreakzio edo erradiazio nuklearraren edo kutsadura erradioaktiboaren ondorioak.

OHAR OROKORRA

Kontratazio-organoak kontrakorik adierazten ez badu, kontratu hau Udalak horretarako zehazten duen artekaritzak administratuko du.

Kontratu honetatik eratortzen diren zerbitzu eta jakinarazpen guztiak Aseguratuak igorriko dizkio Aseguratzaileari, eta alderantziz, artekaritzaren bidez, eta prozedura bera jarraitu beharko da ezbeharrak izapidetu eta likidatzeko.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edozein unetan jakinarazi ahal izango dio aseguru-etxeari bitartekari-aldaketa edo kontratua gauzatzeko beste edozein jarraibide.

Agiri honetako datuak behin-behinekoak dira; dena dela, egungo egoeran, zehatzak dira.

Esleipena egin ondoren, datu horiek estaldurek indarra hartu behar duten uneko egoeraren arabera erregularizatu eta doituko dira.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2. ASEGURU HAUEN ESTALDURA KONTRATATZEA:

ISTRIPUAK

ONURADUNAK:

DONOSTIAKO UDALEKO ETA UDAL ENTITATEETAKO LANGILEAK

BIZITZA ETA ISTRIPU polizako estaldurei dagozkien arrisku pertsonalak Donostiako Udaleko (korporaziokideak eta ordezkariak, langileak eta behin-behineko langileak), udal erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko udal erakunde publikoetako eta udal sozietate publikoetako langileei aseguratzea da Kontratu honen xedea.

Erakunde autonomoak:

- Donostiako Kirol Patronatua.
- DonostiaTIK.
- Donostiako Musika eta Dantza Eskola.

Enpresa entitateak:

- Donostia Kultura.
- Donostiako Etxegintza.

Udal sozietate publikoak:

- Donostia Hileta Zerbitzuak SA
- Donostiako Sustapena SA
- Donostia Turismoa SA

- PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA -

DEFINIZIOAK

Aseguratzailea: Kontratuan hitzartutako arriskuak bere gain hartzen dituen aseguru erakundea.

Aseguru hartzailea: Asegurua aseguratzailearekin kontratatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

Aseguratua: Aseguratutako interesaren titular diren pertsona fisikoak.

Onuraduna: Kalte ordaina jasotzeko eskubidearen titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa, aseguratuak lagapena egin duelako, halakorik gertatuz gero, edo aseguratua hil delako, edo beste edozein inguruabar dela-eta. Ezkontideari buruzko aipamenak izatezko bikoteari ere aplikatuko zaizkio.

Poliza: Asegurua arautzen duten baldintzak biltzen dituen agiria. Polizaren parte dira kontratazio hau arautzen duten baldintza administratiboen eta ekonomikoen agiria eta preskripzio teknikoen agiria, bai eta hura osatzeko edo aldatzeko gerora eman daitezkeen gehigarri, eranskin edo argitalpenak ere.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Prima: Aseguruaren prezioa. Ordainagirian, gainera, legez aplikatzekoak diren errekarguak eta zergak sartuko dira.

Ezbeharra: Poliza honen baldintzen arabera ordaindu beharreko arrisku aseguratuetako bat gauzatzea.

Istripua: Aseguratuaren nahiarekin zerikusirik ez duen indarkeriazko, bat-bateko eta kanpoko kausa batek eragindako gorputzeko edozein lesio hartzen da istriputzak, ESTALITAKO ARRISKUen atalean aurrerago adierazitako baldintzetan.

.ASEGURU HARTZAILEA

Donostiako Udala

.ASEGURUAREN HELBURUA

Hartzaileak bere zerbitzuko langileen aldeko istripu aseguru bat kontratatzea da lehiaketaren helburua da, agiri honetan zehazten diren baldintzen arabera.

.BALDINTZA TEKNIKOAK

Polizaren baldintza teknikoak ondoren zehazten dira. Gutxieneko estalduratzat hartzekoak dira, eta lizitatzaileek hobetu ditzakete.

ESTALDUREN HELMENA

Eguneko hogeita lau orduetan eta mundu osoan daude aseguratuak poliza honen estalduren babespean, bai bizitza arruntean eta partikularrean, bai lanbidean aritzean.

.ASEGURATUTAKO TALDEA

a. Donostiako udala eta haren erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta udal-sozietate publikoen eta haren langileen arteko lan harremana arautzen duten arauen arabera aseguratu beharreko langileek osatzen dute aseguratutakoen taldea. Seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian dauden langileak (3 urtez, gehienez) eta genero indarkeriagatiko eszedentzian daudenak (18 hilabetez, gehienez) sartzen dira —ikus Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren *89*. artikulua —, une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren arabera.

   Era berean, Donostiako Udaleko korporatiboak eta ordezkariak ere sartzen dira.

b. Aurreko atalean adierazitakoa betetzen duten pertsona guztiak automatikoki aseguratutzat joko dira enpresa esleipendunak ematen duen polizaren bidez, eta lehendik izan daitezkeen guztiak bere gain hartuko ditu.

   Hala ere, informazio gisa, hartzaileak urtero emango dio aseguratzaileari zerbitzuan dituen langileen zerrenda eguneratua.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Era berean, ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratzaileak aseguruaren hartzaileari ziurtagiri bat eska diezaioke ezbeharra izan duen pertsona hori hartzailearen zerbitzuan benetan lanean ari zela egiaztatzeko, bai eta ezbeharraren inguruabar eta ondorioei buruzko informazio guztia ere.

c. Bajako langileak: Aldi baterako ezintasunean, behin-behineko baliaezintasunean, lanerako ezintasun iragankorrean, kontratua etenda edo baliaezintasuna tramitatzeko prozesuan dauden langileak.

d. 65 urtetik gorako langileak: Era berean, espresuki hitzartzen da 65 urte beteta dituzten aseguratu guztiek estalita eta berme guztiekin jarraituko dutela, baldin eta hartzailearen agindupean zerbitzu aktiboan jarraitzen badute.

e. Hartzailearen zerbitzuan alta emandako langile minusbaliatuak, minusbaliotasun horretatik ez datorren zeinahi ezbeharretarako.

f. Aseguratutako kolektiboko kide izateagatik edozein arrazoirengatik lana utziz gero, aseguratutako kolektibokoa den bitartean gertatutako gorputz kalteak eragin dituzten eta polizaren estaldurei eragiten dieten gertakarien ondoriozko eskubideak gordeko dira, soilik ezgaitasunaren ondorioen data GSINak edo epai judizial irmoak zehazten duenean eta langilea aktibo zegoen aldiari eraginez gero.

ASEGURATU KOPURUA

Aseguratutako kolektiboa gaur egun osatzen duten kideen kopurua, gutxi gorabehera: **2.054** langile (arlo honetan, ez dira aseguratuko Tranbia Konpainiako langileak.

KAPITALAK EDO BERMEAK ALDATZEA

1. Kapitalak eta, hala badagokie, bermeak, aldatu egingo dira aseguru hau kontratatzearen jatorri den hitzarmeneko estipulazioak edo langileen enplegu baldintzak erregulatzeko araudia aldatzen diren zenbateko eta proportzio berean.

2. Aurreko lerrokadan aipatutako inguruabarrak aldatzearen hasierako ondorioak kasuan kasuko estipulazioak indarrean jartzen diren egunera arteko atzeraeragina izango du, aseguruaren hartzaileak esleipendunari jakinarazpena egiten dion eguna edozein izanda ere.

3. Hartzaileak eta esleipendunak, ados jarrita, sistema bat ezarriko dute aseguratutako berme edo kapitaletan aldaketak egiteko eta aldaketa horien ondorioz sortzen den prima likidatzeko.

GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ESKUMENA DUTEN ADMINISTRAZIO EDO JURISPRUDENTZIA ORGANOEN ERABAKIEKIKO LOTURA

Polizak Gizarte Segurantzaren prestazioak borondatez hobetzen dituenez, eta, ondorioz, arau soziolaboralei lotuta dagoenez, aseguruak honako alderdi hauek bete beharko ditu, aseguru kontratuari buruzko 20/1980 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako arauez gain:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Poliza honen babesean ordaindu beharreko kontingentziatzat hartuko da Gizarte Segurantzaren erregulazioak izaera hori ematen dion edozein gertaera, eta, holanahi ere, loteslea izango da Gizarte Segurantzaren arloan eskumena duten administrazio edo jurisdikzio organoen adierazpena.

Lanekoa ez den istripuaren nozioa aseguru pribatuko kontratuaren erregulazioak zehaztuko du, aurreko paragrafoan aipatutako Gizarte Segurantzako organoek parte hartu ez badute.

Ezgaitasun maila zehazteko, loteslea izango da organo eskudunek, administrazio edo jurisdikzio arlokoek, Gizarte Segurantzaren arloan, poliza honek estalitako egitateengatik langileari gizarte eta lan araudiaren arabera dagokion ezgaitasun mailari buruz hartutako erabaki irmoa.

Horri dagokionez, ezgaitasunen mailaketa eta bakoitzari dagokion korrespondentzia zehaztuko dira. Hona hemen:

- Lan arloko bidean aitortutako baliaezintasun handia polizan estalitako baliaezintasun handiaren baliokidea da.
- Lan arloko bidean aitortutako erabateko ezintasun iraunkorra polizak estalitako erabateko ezintasun iraunkorraren baliokidea da.
- Lan arloko bidean aitortutako ezintasun iraunkor osoa polizak estalitako ezintasun iraunkor osoaren baliokide da.

- Ezintasun Iraunkor Partzialak, lan arloko jurisdikzioan onartuta, polizan jasotako baremoaren arabera dagokion kalte ordaina jasoko du. Aseguratuari lan arlokoan ezgaitasun bat aitortzen ez badiote, baina, polizan dagoen baremoaren arabera, ezgaitasun horren kontura kalte-ordaina jaso badezake, aipatutako baremoaren arabera dagokion kapitala emango zaio aseguratuari.

  Aseguru Etxeak izendatutako medikuek emandako irizpen medikoaren arabera aplikatuko da baremo hori.

ONURADUNAK

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratuek berariaz izendatutakoak izango dira onuradunak, eta aseguru hartzaileak idatziz jakinaraziko dizkio kontratuaren esleipendunari.

Hala ere, aseguratuak berariaz izendatu ez baditu, onuradunak ondoko hurrenkeraren arabera izango dira:

- Ezgaitasunen bat izanez gero, aseguratua bera.
- Heriotza gertatuz gero, lehentasunezko eta baztertzeko arau hauek erabiliko dira:

  1. Lehenik, aseguratutako taldeko kide bakoitzak kontratua indarrean dagoen bitartean edozein unetan egindako izendapena beteko da.

  2. Onuradun izendaturik ez badago, heriotzaren kasurako aseguratutako kapitala lehentasunezko eta baztertzeko arau hauei jarraituta ematekoa da:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

a) Lehenik eta behin, ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera behar bezala eratutako izatezko bikotekidea, aseguratua hil zen egunean legez bananduta ez badaude.

b) Legez banandu gabeko ezkontidea ez badago, seme-alabak eta, horrelakorik ezean, aseguratuaren gainerako ondorengoak.

c) Aurrekorik ezean, gurasoak eta, horrelakorik ezean, aseguratuaren gainerako aurrekoak.

d) Aurrekorik ezean, aseguratutako kapitala aseguratuaren legezko oinordekoei emango diete, Estatua salbuetsita, nolanahi ere.

3. Onuradun bat baino gehiago egonez gero, eta aseguratuak haien artean aldez aurretik banatu ezean, Kode Zibilak herentziaren delazioari eta deiei buruz ezarritako arauei jarraituko zaie, analogiaz.

.ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA ORDAINTZEA

Ezbeharren bat gertatuz gero, aseguratutako zenbatekoa **transferentzia** bidez ordainduko du aseguratzaileak. Transferentzia hori aseguratuaren edo, hala badagokio, dagokion onuradunaren izenean egingo du, aurreko atalean zehaztutako arauen arabera.

Agiri hauetan jasotako ezintasun motak zehazteko, loteslea izango da Gizarte Segurantzako organo eskudunen erabakia, bai eta Segurtasun Institutu Nazionaleko edo organo baliokideko ezintasunen balorazio medikoko unitatearen irizpen medikoa ere.

Horrelakoetan, aseguratutako kapitala ordainduko du aseguratzaileak, gaixotasunaren jatorria, arrazoia eta garapena adierazten duen mediku ziurtagiria jaso ondoren, edo, bestela, Gizarte Segurantzak, Segurtasun Institutu Nazionaleko Balorazio Medikoko Unitateak edo organo baliokideak emandako kalifikazioa jaso ondoren.

EZBEHARRA GERTATU ETA KALTEAK ORDAINDU BEHAR DIRENEAN BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK:

- Udalak egokien jotzen duen moduan ordainduko dute.
- Ez da inor geratuko estalduratik kanpo polizak indarra hartu aurretik sortutako gaixotasunen edo istripuen ondorioz.
- Kontratuaren hasiera datan ez da baztertuta geratuko aldi baterako ezintasun egoeran dagoen inolako aseguraturik.
- Polizaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira istripu aseguruko ezbeharraren datatzat:
- Ezbeharraren arrazoia istripua bada, poliza honen berme guztietarako, ezbeharraren datatzat hartuko da hura gertatu zen eguna.
- Konpainiak, ezbeharraren dokumentazio osoa jaso ondoren, dagokion kalte ordaina pagatu beharko du 15 egun naturaleko epean. Dokumentazioa jasotzen duenetik hiru hilabetera kaltea ordaintzen ez badu, bidezko arrazoirik gabe, Aseguruaren Kontratuaren Legean xedatutako berandutza interesa aplikatuko da.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Prima ordaintzeko unea edozein dela ere, aseguruaren indarraldian gertatutako ezbeharrengatiko kalteak ordaindu beharko ditu aseguratzaileak.

- Ezgaitasun bermeak direla-eta bidezkoa den kalte ordaina pagatzeko, ez da oztopo izango ezgaitasun egoera berriro aztertu ahal izatea larriagotzea edo hobetzea direla eta.

- Baldin eta Gizarte Segurantzaren ebazpenak honako hau adierazten badu: "Aurreikusitakoaren arabera, ezintasun egoera berrikusi egingo da, hobera egitearen ondorioz, eta bi urte baino lehen lanera itzultzeko aukera emango du hobekuntza horrek" (Langileen Estatutuaren Legearen 48.2 artikulua), baliaezintasunagatiko prestazioaren ordainketa etenda geratuko da, lanpostua gorderik duen lan etenaldia dagoen bitartean. Bestela, Gizarte Segurantzaren ebazpena aurkezten duten unean pagatuko du kalte ordaina.

AUTOMATIKOKI SARTZEA

Aseguru hartzaileak polizan sartu behar dituen pertsona guztiak automatikoki integratuko dira hartan, osasun adierazpenik edo antzekorik zertan eginik ez dutela.

Espresuki adierazten dugu ezen aseguruaren hartzaileak 12 hilabete baino aldi laburragoetarako aldi betarako langileak kontrata ditzakeenez, horiek automatikoki sartuko direla aseguruan kontratatzen dituen unetik. Aseguratzaileak, aseguruaren hartzailearekin bat, aseguratu horiei dagokien prima erregularizatzeko mekanismoa ezarriko du.

Aseguruaren urte bakoitza bukatutakoan, likidazio bat egingo dute, aseguratutako taldean gertatutako aldaketen ondorioz hasierako priman izan den eragina erregularizatzeko.

.ESTALITAKO ARRISKUAK

a. **Aseguratua istripuagatik hiltzea.**

b. **Istripuaren ondorioz, aseguratuaren ezintasun iraunkorra eta erabatekoa.**

c. **Ezintasun iraunkorra eta osoa, aseguratuak ziharduen lanbiderako edo lanbidea sartuta zegoen lanbide talderako, istripuagatik.**

d. **Istripuagatiko ezintasun iraunkor partziala.**

Aseguratuaren nahiarekin zerikusirik ez duen indarkeriazko, bat-bateko eta kanpoko kausa batek eragindako gorputzeko edozein lesio hartzen da istriputzak. Aseguru mota honen kasu nagusiez gain, hauek ere istriputzat hartuko dira:

- Pozoitzea, asfixiatzea edo erretzea, gasak nahi gabe xurgatzeagatik, murgiltzeagatik edo urperatzeagatik, gai likidoak edo solidoak irensteagatik (elikadurakoak izan edo ez), akatsaren edo hirugarrenen asmo txarreko ekintzaren ondorioz.
- Polizak estalitako istripu batean sortutako infekzioak.
- Polizak estalitako istripu batek eragindako infekzioak eta ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondorioak.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Comisión de Gobierno Local - Secretaría

- Intsolazioak, kongestioak, izozteak edo tenperaturaren edo presio atmosferikoaren bestelako eraginak, polizak estalitako istripu baten ondorioz aseguratua haien eraginpean egon bada.
- Animalien hozkadak eta intsektuen ziztadak eragindako era guztietako ondorioak.
- Bidezko defentsarako ekintzetan gertatutakoak eta giza elkartasunaren betebeharrarekin zerikusia dutenak.
- Apoplexia, zorabioak, kordea galtzea, sinkopeak, krisi epileptikoak, erotzea, konortea galtzea edo sonanbulismoa direla eta sortuak.
- Hidrokuzioa.
- Lurreko, uretako edo aireko edozein lokomozio bitarteko erabiltzearen ondoriozkoak.
- Afizionatu gisa edozein kirol edo kirol jardueratik eratorritakoak, inolako bazterketarik gabe.
- Giharrak edo tendoiak urratzea edo haustea, giltzurrunetako traumatismoak eta lunbagoak, herniak, polizak estalitako istripu baten ondorio zuzenak badira.
- Goi tentsioko korronte elektrikoetan esku hartzearen ondoriozkoak.
- Lanbide gaixotasuna.
- Donostiako Udalak jarduera profesionala egin behar duenean, honako hauek hartuko dira arrisku estalitzat: alpinismoa, espeleologia, urpekaritza, pertsona ospetsuak eta ondasunak babestea, eta, oro har, une jakin batean beharrezkoa den edozein zerbitzu, kolektibo jakin batzuei beren edukiagatik eta espezializazioagatik eskatzen badiete.
- Infartuak, tronbosiak, enboliak, garuneko isuriak eta antzekoek eragiten dituzten lesioak, heriotza edo horien ondorioak, Gizarte Segurantzako organo administratibo edo jurisdikzionalek nahiz horien ordezko organoek hala erabakitzen badute.

  Aseguratuak Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzeko eskubiderik ez badu, gertakari horiek istriputzat hartuko dira aseguratuaren medikuak eta aseguratzaileak hala adosten dutenean, arlo horretan eskumena Gizarte Segurantzako organoek aplikatzen dituzten irizpideetan oinarrituta. Kasu horietan, aseguratzaileak beharrezkotzat joz gero, informazioa zabaltzeko eska dezake, eta bere zerbitzu medikoei aseguratua azterraraz diezaieke.

.ASEGURATUTAKO KAPITALAK

Aseguratutako kolektiboa osatzen duen pertsona bakoitzarentzat aseguratutako kapitala honako hau da:

BERMEA	ASEGURATUTAKO KAPITALA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

a. Aseguratua istripuagatik hiltzea.	**12.621,25,- euro**
b. Ezintasun iraunkorra eta osoa, aseguratuak ziharduen lanbiderako edo lanbidea sartuta zegoen lanbide talderako, istripuagatik.	**25.242,50,- euro**
c. Istripuaren ondorioz, aseguratuaren ezintasun iraunkorra eta erabatekoa.	**25.242,50,- euro**
d. Istripuaren ondoriozko baliaezintasun handia	
e. Istripuagatiko ezintasun iraunkor partziala.	**25.242,50,- euro**
	Aseguratutako kapitalaren % (25.242,50 euro). Baremoaren arabera, maila oinarri

*Horrez gain, berme honen barruan ondorio bikoitzeko klausula bat sartu da. Horren bidez, aseguratua eta ezkontidea istripu berean aldi berean hiltzen badira, eta 18 urtetik beherako seme-alabak edo adin nagusiko ezinduak badaude, onuradunei "heriotzagatik" aseguratutako kapitala eta gehigarri bat ordainduko dizkiete. Tratamendu bera emango diete guraso bakarreko familiei edo erabateko umezurtzak direnei.

Kasu guztietan, aseguratzaileak aldi bakarrean ordainduko du aseguratutako kapitala.

Arestian aipatutako a, c eta c bermeetarako, aseguratutako kapitalak horietako bakar batengatik ordainduko dizkie onuradunei, hau da, ez dira metagarriak, elkarren baztertzaileak baizik.

Aseguratuak edo aseguratutako kapitalaren onuradunek poliza honek estalitako edozein kontingentziarengatik kobratzea bateragarria da kontingentzia berak estaltzen dituzten beste poliza batzuen bidez aseguratutako beste kapital batzuk kobratzearekin.

Istripuagatiko Ezintasun Iraunkor Partziala osatzen duten lesio organikoak, anatomikoak edo funtzionalak ebaluatzeko, arau hauek ezarrita daude:

Baliaezintasunaren taula

Polizak estalitako istripu batek eragindako gorputz lesioen ondorioz gorputz atalak edo organoak anatomikoki galtzea edo ezintasun funtzionala izatea, baldin eta istripu horretatik suspertzea espero izatekoa ez bada (izendatutako peritu medikoen irizpenaren arabera), hurrengo baremoaren arabera zehaztuko dira, beste bitartekorik gabe.

Erabateko zorotasuna.....% 100
Bi atal erabat galtzea.....% 100
Erabateko paralisia.....% 100
Bi begietan ikusmena erabat galtzea.....% 100
Paraplegia.....% 100
Tetraplegia.....% 100
Etengabe ohean egotera behartzen duten lesioak.....% 100
Ezintasun iraunkor osoa sortzen duen beste edozein lesio.....% 100
Besoa sorbaldatik galtzea.....% 100
Besoa sorbaldaren eta ukondoaren artean galtzea.....% 100
Besoa ukondoaren eta eskumuturraren artean edo eskumuturra galtzea.....% 100
Esku bateko bost hatzak galtzea.....% 100

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Esku bateko lau hatz galtzea, erpurua kenduta		% 50
Erpurua galtzea:	- bi falangeak	% 25
	- falange bat	% 20
Hatz erakuslea galtzea:	- hiru falange	% 10
	- bi falange	% 10
	- falange bat	% 8
Erdiko hatza galtzea:	- hiru falange	% 6
	- bi falange	% 5
	- falange bat	% 5
Hatz nagia galtzea:	- hiru falange	% 5
	- bi falange	% 5
Hatz txikia galtzea:	- hiru falange	% 5
	- bi falange	% 5
	- falange bat	% 5
Metakarpoak galtzea:	- lehena edo bigarrena (gehigarria)	% 5
	- hirugarrena, laugarrena edo bosgarrena (gehigarria)	% 5
Hanka galtzea:	- aldakan	% 100
	- aldakaren eta belaunaren artean	% 100
	- belaunaren azpian	% 100
Behatzak galtzea:	- guztiak	% 15
	- lodia, bi falangeak	% 10
	- lodia ez den beste hatz bat baino gehiago galtzea, bakoitza	% 5
Begiak:	- begi oso bat galtzea	% 100
	- begi bateko ikusmena	% 100
	- begi bakarreko ikusmena, salbu argia hautematea	% 50
	- begi baten kristalinoa	% 50
Entzumena galtzea:	- bi belarriak	% 75
	- belarri bakarra	% 25

Atal edo organo baten ezintasun funtzional absolutu eta iraunkorra dena delakoaren galera osotzat hartuko da.

Aurreko baremoaren osagarri gisa, arau hauek aplikatuko dira:

a. Istripu baten ondorioz baliaezintasun mota bat baino gehiago izanez gero, kalte ordainen ehunekoak metatuta ordainduko da, berme horretarako aseguratutako kapitalaren % 100 arte gehienez ere.

b. Kide edo organo berean zenbait baliaezintasun partzialengatiko kalte ordainen portzentajeen baturak ezin izango du gainditu erabateko galera kasurako ezarritako portzentajea.

c. Baremoan espresuki zehazten ez diren baliaezintasun motei baremoan agertzen diren beste kasu batzuekiko antzekotasuna oinarri hartuta emango diete kalte ordaina.

d. Mugakizun eta galera anatomiko partzialak ukituriko kide edo organoaren erabateko galera edo ezintasun funtzionalaren proportzioan ordainduko dira.

e. Istripua gertatu baino lehen ukitutako organoak edo atalak akats fisiko edo funtzionalen bat bazuen, ezgaitasun maila aldez aurretik zegoen ezintasun mailaren eta istripuaren ondoren sortzen denaren arteko aldeak zehaztuko du.

f. Aseguratuari Ezintasun Iraunkor Partzialagatiko kalte ordaina eman badiote (baremoaren arabera), eta, ondoren, beste istripu batek eragindako beste ezgaitasun mota bat onartzen badiote, eta horren ondorioek ez badute lehenago aitortutako Ezintasun Partzialaren larriagotzea eragiten, beste Ezintasun Partzial berri horrek bermatutako Kapital Osoa jasoko du (baremoaren arabera); lehenago aitortutako ezgaitasun partzialaren larriagotzetzat jotzen bada, ordaindu egingo diote aurretik ordaindukoaren eta ezgaitasun berriari dagokion kalte ordainaren arteko aldea (baremoa oinarri dela).

g. Ezkertiek eskuinentzat xedatutako tratamendu bera izango dute.

h. Elbarritasunik eragiten ez duten lesio iraunkorrek edo ondorio iraunkorrek kalte ordaina jasoko dute, aurreko

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobertu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

baremoa aplikatuta edo horretan ageri diren beste kasu batzuekiko analogiaz.

i. Kalte ordainak aseguratuaren lanbidea eta adina gorabehera finkatuko dira, bai eta baremotik kanpoko beste edozein faktore gorabehera ere.

   Aseguru konpainiak bere mediku taldeaz aseguratuari geratzen zaizkion ondorio iraunkorrak baloratuko ditu, eta dagokion aseguratutako kapitalaren gaineko portzentajea izendatuko dio aseguratuari. Atal honetan egongo dira, halaber, Gizarte Segurantzak Ezintasun Iraunkor Partziala eman izanaren ondorioz aseguratuak kalte ordainak eskaturiko ondorioak. Ezgaitasun hori arlo horretan eskumena duen erakundeak egingo du, eta GSIN edo Donostiako Udalak dena delako kolektiboa gainbegiratzeko akordioren bat duen beste edozein erakunde ere izan daiteke.

Akats administratiboaren klausula

Hartzailea behartuta dago talde aseguratuan gertatzen diren aldaketen berri konpainiari ematera. Hala ere, hartzaileak asmo txarrik gabe egindako akats edo ahaztu izanaren ondorioz polizaren bidez gauzatutako pentsio konpromisoari lotutako langile bat edo gehiago polizan sartu ez baditu, bete beharreko bermeen edo kapitalen aldaketa jakinarazi ez badu, edo, jakinarazi arren, okertu bada, eta aseguraturen batek edo batzuk ezbeharra izanez gero, aseguru etxeak ezbeharra onartuko luke, baldintza hauek betez gero:

a) Ezbeharraren ondorioak polizak babesten duen arrisku batetik etortzea eta langilea enpresan alta eman ondoren gertatzea.

b) Hartzaileak egiaztatu behar du akats administratiboren bat dagoela, alta agiriaren bidez (langileentzako TC2 agiriaren kopia, korporatibo baten izendapena jasotzen duen aldizkari ofizialaren kopia, eskoltarentzako agiri ofiziala edo hartzailearekiko lan harremana egiaztatzen duen beste edozein agiri), ezbeharra gertatu baino lehen indarrekoa delarik dena delako agiriak.

Ondoren, polizaren administrazio sisteman adostutako epean, langilea polizan sartu behar zuten egunetik ezbeharraren datara bitarteko aldiari dagokion prima likidatuko dute.

Partzuergoaren klausula

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako eta maiatzaren 16ko 12/2006 Legeak aldatutako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoaren arabera, nahitaez enpresa erakunde publiko horren aldeko errekargua jaso behar duen aseguru kontratu baten hartzaileak eskubidea du indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen edozein aseguru erakunderekin ezohiko arriskuak estaltzea adosteko.

Espainian gertatutako ezohiko gertaerek eragindako ezbeharrek eragindako kalte ordainak, hartan kokatutako arriskuei eragiten dietenak, bai eta atzerrian gertatutakoak ere, aseguratuak ohiko bizilekua Espainian duelarik, aseguruen konpentsaziorako partzuergoak ordainduko ditu, hartzaileak bere aldeko errekarguak ordaindu baditu eta egoera hauetako bat gertatuz gero:

A) Aseguru etxearekin kontratatutako aseguru polizak ez babestea aseguruen konpentsazio partzuergoak estalitako ezohiko arriskua.

B) Aseguru poliza horrek babesturik egon arren, aseguru entitateak bere betebeharrak bete ezin izatea, judizialki konkurtsoan deklaratu dutelako edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kontu hartu edo bere gain hartutako likidazio prozedura bati lotuta dagoelako.

Aipatutako legezko estatutuan, aseguru kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legean, ezohiko arriskuen aseguruaren Erregelamenduan (otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onartua) eta horren xedapen osagarrietan xedatutakora egokituko du bere jarduera Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak.

Ezbeharrik ez izateagatik irabazietan parte hartzea

Irabazietan parte hartzea xedatuta dago, aldeko ezbeharren arabera, arau hauek oinarri direla:

1. Aldeko desbiderapena kalkulatzeko, ordaindutako prima garbiei (administrazio gastuak kenduta) aldi horretan gertatutako ezbeharren zenbatekoa kenduko zaie.

2. Lortzen den aldeko desbideratzeari mozkinetako partaidetzaren portzentajea aplikatuko zaio.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

3. Ezbeharren desbideratzea kontrakoa balitz, aseguratzaileak osorik hartuko luke urteko galera, eta hartzaileak ez luke kalterik jasango hurrengo urteetako tarifa prima doitzerakoan.

4. Kontratua berritzen ez badute, poliza ezeztatu aurreko urteko aseguruko mozkinetako partaidetzaren zenbatekoa ordainduko du aseguratzaileak, arau horien arabera.

5. Lizitazio honetako aseguru programa osatzen duten bizitza eta istripu polizek batera hartuko dute parte irabazietan,formula honen arabera:

   PB= XX% (YV%PN vida – SIN vida + YA% PN acc – SIN acc)

Salbuespenak

Berariaz adierazten da polizak ez duela estaldurako salbuespenik polizaren inolako bermetan hura indarrean jarri aurretik sortutako edo gertatutako gaixotasun edo istripuen ondorioz.

1. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak unean-unean indarra duen legeriaren arabera aparteko arriskutzat jotzen dituenak entitate horrek ordainduko baititu arrisku horiek. Era berean, polizak ez ditu estaliko Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ezbeharra gertatu zen egunean indarrean zegoen araudian ezarritako arauren bat betetzearen ondorioz estaltzen ez dituen kalteak.

2. Apartekotzat jotzen ez diren arriskuetarako, honako hau hartuko da kontuan:

Istriputzat joko dira eta, beraz, halakotzat hartuko, beren ebazpen edo epaietan eskumena duten erakunde ofizial edo jurisdikzionalek istripu gisa katalogatutako egintza guztiak, bai eta lanbide eritasun guztiak ere.

Dagokion ebazpen edo epai irmoetan eskumena duten erakunde ofizial edo jurisdikzionalek gertaera eragilea laneko istripu gisa sailkatzen dutenean, EZ dago inolako salbuespenik.

Salbuespenik ez egoteak polizaren berme guztiak bilduko ditu, laneko istripuaren ondorio izanez gero.

Gertaera eragilea EZ badute lan istripu gisa sailkatzen, polizaren salbuespenak, berme guztietarako, hauek dira:

- Aseguratuak nahita eragindako delituetan parte hartzea.
- Suizidioa edo norberak egindako edozein lesio.
- Mozkortuta egoteagatik edo medikuak agindu gabeko sorgorgarriak erabiltzeagatik aseguratuari gerta dakizkiokeen ezbeharrak.
- Gerra edo antzeko eragiketak.
- Erreakzio edo erradiazio nuklearraren edo kutsadura erradioaktiboaren ondorioak.

OHAR OROKORRA

Kontratazio-organoak kontrakorik adierazten ez badu, kontratu hau Udalak horretarako zehazten duen artekaritzak administratuko du.

Kontratu honetatik eratortzen diren zerbitzu eta jakinarazpen guztiak Aseguratuak igorriko dizkio Aseguratzaileari, eta alderantziz, artekaritzaren bidez, eta prozedura bera jarraitu beharko da ezbeharrak izapidetu eta likidatzeko.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edozein unetan jakinarazi ahal izango dio aseguru-etxeari bitartekari-aldaketa edo kontratua gauzatzeko beste edozein jarraibide.

Agiri honetako datuak behin-behinekoak dira; dena dela, egungo egoeran, zehatzak dira.

Esleipena egin ondoren, datu horiek estaldurek indarra hartu behar duten uneko egoeraren arabera erregularizatu eta doituko dira.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Donostia, 2021eko apirilak 27a.

Sin.: Eukene Munoa Irureta
Ondare Zerbitzubura

I ERANSKINA.- BIZI-ASEGURUKO LANGILEEN ZERRENDA
II ERANSKINA.-ISTRIPU-ASEGURUKO LANGILEEN ZERRENDA
III ERANSKINA.- EZBEHARREN TAULA